


IGARTU BERDEA

# txostena

CASERÍO MUSEO IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA

Gipuzkoako Foru Aldundia





***Lihoaren prozesua*** erakusketa
*Goruzaleak* taldeak bildutako piezak, egun Gordailun daudenak ikusgai, azaroak 2rarte.
Inaugurazio ekitaldian, irailak 5ean, Estanis Urdanpiletak azalpenak eskaini zituen, piezen erabilerari buruz.
Bibliografia kontsultatzeko irakurketa txokoa







***Festarako jantziak azken 100 urteotan, janzteko moduaren garrantzia*, Ane Albisuren solasaldi tailerra**







# Burukoa






# Albarkak jazteko bi modu











**Lixiba erakustaldia:** Zeraingo zenbait bizilagunek, lixiba egiteko ontzian, arropa sartu eta suteko hautsaz, landare lurrintsuz eta ura irakiten jarriz garbiketaren erakustaldia burutu dute.



***Lihoaren eta euskal emakumeen historia ezkutua*** Jose Antonio Azpiazuren solasaldia.



Bi liho hazi ezberdinak bereizten eta ikutzen



Haziekin potoak apaintzen



Haziekin marrazkiak egiten



Liho haziekin egindako ogiak bereizten

***Lihoaren haziak sukaldean*** Tailerra. Lihoaren haziek dituzten elikadura eta medikuntza bertuteak ezagutzeko aukera, modu aktiboan eta sentsorialean, joku eta proposamenen bitartez.



Gariarekin egindako taloak egiten



Taloak berotzen

# Ekimenaren promozioa

**Ezkio-Itsasoko herritarrei jardueraren informazioa banatu.**

**Tarjetoi digitala:** 1.765 bidalketa pertsonalizatua

**Hedapena: Prentsaurrekoa Foru Aldundian**

**Irrati kunak Euskadi Irratian**

**Prentsa agiria** komunikabideetara

Interneteko **blogak**

IGARTUBEITI

**LIHOA LANTZEN ZIKLOA**

Baserriko emakumeen zeregin honi buruzko erakusketa, erakustaldi, hitzaldi eta tailerrak.

Irailak 5, ostirala

19:00 // ***Lihoaren prozesua* ERAKUSKETA-ren Inaugurazioa**

Inaugurazioa eta aurkezpena, bildumaren jabe den **Goruzaleak** taldeko **Estanis Urdanpileta**ren eskutik. Erakusketa Igartubeitin azaroak 2rarte. Lihoa lantzeko prozesuan erabilitako lanabesen eta tresnen erakusketa. Gaur egun pieza hauek Gordailuan, Gipuzkoako Kultur Ondare Higigarriaren Zentroan daude.

Irailak 7, igandea

10:30-12:30 // ***Festarako jantziak azken 100 urteotan, janzteko moduaren garrantzia* SOLASALDI-TAILERRA**

**Ane Albisu**ren eskutik, Ikerfolk-eko partaidea eta *"Atondu"* liburuaren egilea.

Gaur egun janzten ditugun festarako jantzien sorburua eta bilakaera.

Solasaldiaren ondoren praktika egiteko aukera izango da gure jantzi eta janzkiak janzteko modua saiatuz.

12:30-14:00 // **LIXIBA ERAKUSTALDIA. *Arropa garbitzeko prozesua.***

Zeraingo zenbait herritarren eskutik, garai batean arropa suteko hautsaz, landare lurrintsuz eta ura irakiten jarriz nola garbitzen zuten ezagutuko dugu.



Irailak 12, ostirala

19:00 // ***Lihoaren eta euskal emakumeen historia ezkutua* SOLASALDIA. José Antonio Azpiazu**ren eskutik. Historialari eta antropoloak, *La historia desconocida del lino vasco* argitalpenaren egilea, lihoak euskal emakumearen bizitzan izan duen garrantzia azalduko du.

Irailak 13, larunbata

16:30-18:30 // ***Lihozko haziak sukaldean* FAMILIENTZAKO TAILERRA.**

Clara Gutierrezen eta Sonia Gutierrezen eskutik.

Parte hartzaileek lihozko haziekin zenbait errezeta burutuko dituzte. 5 urtetik gorako haurrei eta beraien familiei zuzendua.

**CICLO *TRABAJANDO EL LINO***

Exposición, demostración, conferencias y talleres en torno a esta labor desarrollada por las mujeres en el caserío.

Viernes 5 de septiembre

19:00 // **Inauguración EXPOSICIÓN: *El proceso del lino***

Inauguración y presentación a cargo de **Estanis Urdanpileta**, del grupo **Goruzaleak**, propietario de la colección. Exposición en Igartubeiti hasta el 2 de noviembre.

Exposición de utensilios y herramientas utilizadas en el proceso de trabajo del lino. Piezas depositadas actualmente en Gordailu, Centro de Patrimonio Cultural Mueble de Gipuzkoa.



Domingo 7 de septiembre

10:30-12:30 // **CHARLA-TALLER: *Nuestra indumentaria y trajes tradicionales en los últimos 100 años.***

A cargo de **Ane Albisu**, miembro de Ikerfolk y autora de la publicación *"Atondu"*.

Recorrido por el origen y la evolución de los trajes tradicionales que vestimos hoy en día. Tras la charla se ofrecerá un taller para aprender cómo vestir correctamente nuestros trajes tradicionales.

12:30-14:00 // **DEMOSTRACIÓN: *LIXIBA. El proceso de lavar la ropa.***

A cargo de **vecinos y vecinas de Zerain** conoceremos cómo se lavaba la ropa antiguamente con ceniza, plantas de buen olor y agua hirviendo.

Viernes 12 de septiembre

19:00 // **CHARLA: *La historia desconocida del lino y de la mujer vasca.*** A cargo de **José Antonio Azpiazu**. Historiador y antropólogo, autor de la publicación *La historia desconocida del lino vasco*, explicará la trascendencia del lino en la vida de la mujer vasca.

Sábado 13 de septiembre

16:30-18:30 // **TALLER FAMILIAR: *Las semillas de lino en la cocina.***

Imparten: Clara Gutierrez y Sonia Gutierrez. Los/as participantes elaborarán diversas recetas con semillas de lino. Dirigido a niños/as a partir de 5 años y sus familias.

---

Aurrez izena eman igartubeiti@gipuzkoa.net-en edo/eta 943 72 29 78 telefonoan. Plaza mugatuak.

Inscríbete previamente en igartubeiti@gipuzkoa.net y/o llamando al 943 72 29 78. Plazas limitadas.

# Presentzia komunikabideetan

| **KOMUNIKABIDEA** | **SAILA / SAIOA** | **DATA** |
|---|---|---|
| EL DIARIO VASCO | | 2014-08-30 |
| BASQUE DESTINATION | | 2014-09-01 |
| EUSKADI IRRATIA | | 2014-09-04 |
| RADIO EUSKADI | | 2014-09-04 |
| EFE | | 2014-09-04 |
| ZU ZEU | | 2014-09-04 |
| GIPUZKOA TV | | 2014-09-04 |
| SUSTATU | | 2014-09-04 |
| BIZKAIe | | 2014-09-04 |
| TXANTXANGORRI.INFO | | |
| NAIZ | | 2014-09-04 |
| NONTZEBERRI | | 2014-09-04 |
| EL DIARIO VASCO | CULTURA | 2014-09-05 |
| EL DIARIO VASCO | UROLA GARAIA | 2014-09-05 |
| UROLA TELEBISTA | | |
| GOIERRIKO HITZA | | 2014-09-05 |
| EL DIARIO VASCO | UROLA GARAIA | 2014-09-06 |
| GOIERRIKO HITZA | | 2014-09-12 |
| EL DIARIO VASCO | UROLA GARAIA | 2014-09-14 |
| GIPUZKOAKO MUSEOAK | | |

# Presentzia komunikabideetan

GOIERRIKO hitza
Goierriko albisteak

Hasiera | Irudiak | Bideoak | Paperekoa | Goiberri | Azok

Aisia | Kirola | Kultura | Gizartea | Ekonomia | Politika | Gutunak | Bix

## Eraldaketaren testigantza

by Goierriko Hitza on 2014/09/12 in



Igartubeiti Baserri Museoakmaite du denboran atzera egitea, atsegin du behinola izandako objektuei so egitea. Igartubeiti Baserri Museoak gustuz kentzen die hautsa ahanzturaren kaxoiko ohiturei. Baina, batez ere, Ezkio-Itsasoko museoak kaxoi horretan aurkitutako altxorrak biziberritu egiten ditu, egungo jendartean ezagutzera emanda.

Oraingoan, lihoa lantzen zuten emakumeak gogorarazi nahi izan ditu, eta halaber, egiten zuten lana nabarmendu nahi izan du, egun ez baita

Zikloa Erdi Arotik ia XX. menderaino baserrietako emakumeek lihoarekin egin zuten lana berreskuratzera zuzenduta dago. Lihoaren landaretik ohiala lortzeko egin beharreko prozesua luzea, konplexua eta gogorra izaten zen. Alabaina, arreta merezi duen lana izan arren, egun ezezaguna da gehienentzat.

Hain juxtu ere, arreta eta interesa merezi dituela iritzita antolatu dute Igartubeiti Baserri Museokoek Lihoa lantzen zikloa. Ziklo hori Laneko kultura izeneko proiektuaren baitan ulertu behar da. Izan ere, proiektu horrek belaunaldi berriei baserritarrek egiten zituzten lanak ezagutzera ematea du helburu, maiz jabetu ez arren, kulturaren parte baitira zeregin horiek.

**Ekitaldiz betetako asteburua**

Joan den ostiralean aurkeztu zuten zikloa Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, eta asteburuan bertan ekin zieten jarduerei. Hala, egun hartan bertan, Lihoaren prozesua erakusketa inauguratu zuten. Erakusketa honetan, Goruzaleak taldearen bildumako objektuak daude ikusgai.

Objektu horiek liho landarea oihal bihurtzeko prozesura gerturatzen dute ikuslea, eraldaketa horretan erabiltzen ziren hainbat tresna ikusi baitaitezke. Besteak beste, liho haziak bereizteko erabili ohi zen karrama, lihoa txikitzeko tranga edo lihoa karrakatzeko ezpata-oina. Halaber, prozesu luze horren ondoren lortutako oihalaz egindako zenbait jantzi ere badaude ikusgai.

Erakusketa azaroaren 2ra arte izango dute Igartubeitin, asteazkenetik igandera, 10:00etatik 14.00etara, eta 16:00etatik 19:00etara.

Igandean, berriz, Ane Albisu, jantzi tradizionaletan aditua izan zuten gonbidatu. Albisu gaur egungo hiri giroko festetan janzten ditugun jantzien jatorriaz eta bilakaeraz mintzatu zen goizean egindako solasaldi tailerrean. Eguerdian, Zeraingo zenbait bizilagunek, garai bateko jantzi garbiketaren erakustaldia burutu zuten.

http://goierri.hitza.info/paperekoak/eraldaketaren-testigantza/

EL DIARIO VASCO | GIPUZKOA | SOCIEDAD | POLÍTICA | ECONOMÍA | MUNDO | REAL SOCIEDAD | DEPORTES | CULTURA | PLANES | GENTE | TECNOLOGÍA

GIPUZKOA

GIPUZKOA > ALTO UROLA

## Lihoa lantzen zikloa hasi da igartubeitin

6 septiembre 2014
00:01



'Lihoa lantzen' zikloari hasiera eman zioten atzo arratsaldean Igartubeitiko interpretazio zentruan, lihoaren prozesuaren erakusketa zabalduz. Honetan, Goruzaleak taldeak 30 urte ingurutan Euskal Herrian bildu dituen objetuak daude ikusgai, argazki bilduma batekin batera. «Lihoa lantzen zuten emakume baserritarrei omenaldia egin nahi izan diegu bilduma honekin. Egunean zehar baserrian lana egin ondoren, gauetan, haria egiten zuten emakume haiei», azaldu zuen Oiartzungo Estanis Urdanpiletak, Goruzaleak taldeko

PUBLICIDAD

www.diariovasco.com/alto-urola/201409/06/lihoa-lantzen-zikloa-hasi-20140906000158-v.html

RSS | EU | ES | FR | E

naiz: Eguneratua: 12:56 (CEST) 24° D. Garazi GA

INFO | IRITZIA | NAIZ+ | AGENDA | HARPIDETZA

OHAR-TAULA

## 'Lihoaren eta euskal emakumeen historia ezkutua'

*2014/09/12 - 2014/09/13*
*EZKIO-ITSASO*
*GIPUZKOA*

INPRIMATU
BIDALI



*AIPAMENAK*

Igartubeiti Baserri Museoak Lihoa lantzen Zikloa antolatu du irailak 12-13rako. Asteburuan, emakumeek baserrian burutzen zuten zeregin honi buruzko zenbait jarduera izango dira: erakusketa, erakustaldia, solasaldiak eta tailerrak.

Irailaren 12an, 'Lihoaren eta euskal emakumeen historia ezkutua) izenburuarekin Jose Antonio Azpiazuren solasaldia izango da arratsaldeko 19:00etan hasita. Historialari eta antropoloak, 'La historia desconocida del lino vasco' argitalpenaren egileak, lihoaren haziak euskal emakumearen bizitzan izan duen garrantzia azalduko du.

Irailak 13, larunbata, 16:30etatik 18:30etara: Lihoaren haziak tailerra, familiei zuzendua, 5etik urtetik gorako haurrei eta beren gurasoei zuzendua. Partehartzaileek lihoaren haziak dituzten elikadura eta medikuntza bertuteak ezagutuko dituzte modu aktiboan eta sentsorialean, ondorengo joku eta proposamenen bitartez: Liho haziekin joku sentsorialak Lihoa ereitea loreontzietan Liho haziekin eta inguruko landareekin diseinu artistikoak. Liho haziekin egindako ogi eta zuku dastaketa. Aurrez izena eman igartubeiti@gipuzkoa.net-en edo/eta 943 72 29 78 telefonoan

*KOKAPENA*

Ezkio bidea 1
Igartubeiti Baserri Museoa
Ezkio-itsaso

www.naiz.eus/eu/agenda/evento/lihoa-lantzen-zikloa

Txantxangorri.info | HASIERA | HARREMANETARAKO | TXANTXANGO

IRAKURRIENAK
AURREKO ALEAK

## 'Lihoa lantzen' zikloa Igartubeiti Baserri Museoan

Inprimatu | E-mailez bidali



**Txantxangorri.info |** Igartubeiti Baserri Museoak Lihoa lantzen Zikloa antolatu du irailak 5 eta 7rako eta 12-13rako. Bi asteburu hauetan, emakumeek baserrian burutzen zuten zeregin honi buruzko zenbait jarduera izango dira: erakusketa, erakustaldia, solasaldiak eta tailerrak.

Lihoa lantzen Zikloa, baserriko emakumeek, Erdi Arotik ia XX. menderaino, lihoaren inguruan burutzen zuten lanketa berreskuratzera zuzentzen da. Lihoaren landaretik oihala lortzearen eraldaketa oso zeregin luzea, konplexua eta gogorra zen, aspaldi desagertua izaki erabat ezezaguna gaur egun.

www.txantxangorri.info/index.php/albisteak/kultura/item/167-lihoa-lantzen-zikloa-igartubeiti-baserri-museoan

basque destination
CREATING MEMORIES

INICIO CONÓCENOS

# Igartubeiti

Baserri bat baino gehiago



## Udazkena Igartubeitin

01 SEP 2014 0 COMMENT MÚSICA, SIDRA

Igartubeiti baserriak beste edozeinek baino hobeki islatzen du euskal baserriaren Urrezko Aroa esan diezaiokeguna. Baserria XVII. mendearen hasieran (1630), bere garairik gorenean, zabaldu eta eraberri egin zen, bizimodu eta lan mota berrietara egokitzeko. Zorionez, esku-hartze honek ia ez zuen ukitu jatorrizko egitura eta gaur egun ere garai bakoitzeko eraikitzeko moduak eta espazioen erabileran izan

ere kontuan hartuta, **Euskal Herriko baserririk interesgarrienetako bat** dela esan dezakegu, baita ondareko funtsezko elementuetako bat.

Argi eta garbi erakusten ditu garai hartako **balore kultural, historiko, antropologiko, arkitektoniko** eta **sinbolikoak**.

Jarraian udazken honetarako antolatu dituzten jarduerak aurki ditzazkezu.

### Lihoa lantzen zikloa. 2014ko iraila

#### Lihoa lantzeko tresnen, lihozko jantzien eta burukoen Erakusketa

Gordailuko Goruzaleok bildumako lihoa lantzeko tresnez eta lihozko oihalez osatutako erakusketa izango da ikusgai irailean Interpretazio zentroko gela polibalentean.

Lihozko jantziak eta burukoak ere San Telmo Museoari eskatuko dizkiogu. Erakusketa hau urriak 5erarte izango da ikusgai.

Rafa Berasategi, Segurako Plaza Zaharreko Lagunen Elkarteko adituaren eskutik lihoa lantzeko tresneriaren inguruko solasaldia.

Igartubeitin izango dugun erakusketako pieza eta tresneriak zertarako erabiltzen diren azalduko du.

#### Irailak 7an. Jose Antonio Azpiazuren solasaldia

Historialari eta antropologo honek, besteak beste, La historia desconocida del lino vasco izeneko argitalpenaren egileak eskainiko duen solasaldian ehun honek XVI eta XVIII. mendeetako euskal bizitza sozialean eta ekonomikoan izan zuen garrantzia azalduko du. Iraganeko ibilbide honetan, Azpiazuk eszenatoki liluragarri zein ezezagunera gerturatuko gaitu. Irailak 13an.

#### Familientzako Lihozko haziak tailerra. Irailak 13an, larunbatean

Lihozko haziak osasungarriak dira eta modu askotara erabili daitezke. Ume eta gurasoek zertarako erabil daitezkeen ezagutuko dute.

#### Atondu, Ane Albisuren solasaldi eta tailerra

Ane Albisuk Eusko Ikaskuntzako Folklore sailean eta azken urteotan Ikerfolk folklore ikerketa erakundean folkloreari eta modari loturiko hainbat ikerketa burutu ditu.

Solasaldian jantzi tradizionalen ibilbide historikoa jorratuko du, baserritar jantziarena bereziki, horrela, tailerrean, zapi zuria nola jantzi behar den ere erakutsiko du.

www.basquedestination.com/udazkena-igartubeitin/

# Babesleak, kolaboratzaileak eta gonbidatuak


- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirolak Saila
- Ezkio-Itsasoko Udala
- Yartu Kultur Elkartea
- Goruzaleak taldea
- Gordailua
- Ane Albisu
- Zeraingo taldea
- José Antonio Azpiazu
- Clara Gutierrez
- Sonia Gutierrez

Igartubeiti Baserri Museotik eskerronak guztiei











I·M CASERÍO MUSEO IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA

Gipuzkoako Foru Aldundia

www.igartubeitibaserria.net